

Astekaria

BARRREN

elgoi



LARRAÑAGA autoeskola



Santa Ana, 11. Tel: 74 10 11 Elgoibar

3 LAU HANKATAN

"Baina baten errol ezberdin horiek malgu behar dute izan, eta aldatzeko aukera eduki..." **Diana Perez de Albeniz.**

6 ERREPORTAIA: UDALEKUAK

Aurtengo ikasturtea bukatzeaz dago eta oporretara begira, udalekuetara joateko eskaintza zabala izan ohi da.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: BOTATU BEHAR AL DUZU?

Patxi Arriola: "Gai baten inguruan eztabaida sortzen denean, politikoen arteko ezberdintasunaz konturatzen zara."

Gabi Agirregomezkorta: "Esatea gogorra bada ere, ez dut politikoengan sinisten".

14 BERBETAN

Aquilino Fernandez:

"GAZTEAK BIHURRIAGOAK ZIREN TRANSIZIO GARAIAN".

16 KIROLA:

GAIA: PARTAIDETZA HANDIA ARRANTZA LEHIAKETAN

ELKARRIZKETA: **Oier Aldazaba**

ELGOIBARREN EZ DAGO PILOTAZALE ASKORIK

19 KULTURA

PREBENTZIORAKO PROGRAMA BAT ESKATU ZUEN ERROTATXOK

PREBENTZIOREN ASTEAN

TXANDAK

FARMAZIAK:

5, larunbata: YUDEGO

6, igandea: YUDEGO

7, astelehena: BIDASOLO

8, asteartea: BIDASOLO

9, asteazkena: BIDASOLO

10, osteguna: BIDASOLO

11, ostirala: BIDASOLO

OKINDEGIAK:

6, igandea: BOUTIQUE DEL PAN



PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak.....741155

Txanda hartzeko.....743354

Alkoholiko Anonimoak740385

D.Y.A (anbulantzia).....464622

Gurutze Gorria743864

Mendaroko Ospitala.....756264

Drogomenpekotasun Zerbitzua

(Anbulatorioa)743936

Odol Emailen elkarteak.....741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442

PESA (Eibar)112131

Taxi Geltokia740898

UDALA

Euskara Zerbitzua744366

Kultura eta Kirol Zerbitzua...742158

Mendaroko Udala756100

Ongizate zerbitzua743736

Udaletxea741050

Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142

IMI741196

Kontsumo Bulegoa (OMIC) .743088

Liburutegia.....743525

Musika Eskola.....742145

Polikiroldegia.....741361

Postetxea741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza740296

Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79

I.M.H.....74 41 32

Institutua74 02 67

Ikastola.....74 27 00

L.H.I.....74 31 00

Pilar Ikastetxea.....74 13 31

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkartea
☎ 74 16 26

Laguntzailea
Elgoibarko Udala

Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirreazaldegi

Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu

Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton
Bergara, Edurne Bilbao,
Rosa Iriondo, Jose Inazio
Sarasua

Kazetaria
Ainhoa Lodoso

Maketatzailea
Maite Rementeria

Publizitatea
Amaia Leiaristi

Administrazioa
Josune Fernandez
M. Angeles Ortuoste

Azala
El Diario Vasco

Kolaboratzaileak
Myriam Aldazabal, Alberto
Ansuategi, Isabel Ansola,
Joxin Arregi, Belen
Arrizabalaga, Bertso Eskola,
Agur Miren Barandiaran,
Hasier Etxeberria, Maite
Iriondo, KOKOE, Imanol
Larrañaga, Aitor Lodoso,
German Meabebasterretxea,
Susana Mugika, Jasone
Osoro, Diana Perez de
Albeniz, Lorea Perez de
Albeniz, Eduardo Sanz,
Aitor Zabaleta.

Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia

Helbidea
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

Tirada
3.000 ale

Lege gordailua
SS-1.038/92

ISSN
1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

LAU HANKATAN



Diana Perez de Albeniz

Zein da gure lekua jolas honetan?

Denok betetzen dugu leku bat eta paper bat jokatzen, antzerki batetako aktoreek legez.

Familiar, lanean, lagunartean etabar horrela izan behar du besteek erreferentzi puntu bat eduki dezaten zugandik zer espero den aurretik jakin ahal izateko, eta zurekiko nola jokatu ezagutzeko. Horretarako gara denok bultzatuak, geure lekua eta jarrera ondo definitzera.

Edozein egoeraren aurrean, bakoitzak bere balantza propioan on-tzat eta txartzat hartzen duena alde batean ala bestean kolokatu, eta balantzak zein aldera egiten duen behatzen du. Ingurunearekiko jokatzen dugun papera ebaluatzeko, gauza bera. Eta, hori ikusi ondoren, gure horretan jarraitzen dugun momentutik, ezer onik lortzen dugulako behar du izan, dagokigun taldean onartua sentitzea besterik ez bada ere.

Baina baten errol ezberdin horiek malgu behar dute izan, eta aldatzeko aukera eduki, korrontearen aurka igeri eginez, beharrezko bada.

Banakoen mailatik kanpo ere, herri erlazioek bide bera ibiltzen dute. Estatu bakoitzak, nazio bakoitzak, kultura bakoitzak... bere ondo irudi-

katuriko papera antzetzu behar du.

Beraz, gauzak horrela, inork kontatuko al lidake Euskal Herriari eta euskaldunoi zernolako tokatzen zaigun estatu espainolaren barruan? Diruzaina? Laguntzen hartzailearena? Politika gidatzailearena? Edo, gutxiengo zapaldu eta txoko ahaztuarena?

Nik behintzat ez dut batere lakot banatu zaion eta orainarte hartu eta betetzen joan dena. Errespetua sentitzea da gutxienez batek espero dezakeena sartuta dagoen multzoan duen tokiaren truke. Errespetatuak sentitzen al zarete, jokoan daukazuen betebeharrarekin?

Nik nire balantzaren ipintzen ditut onerakoak eta txarrerakoak, eta ez da, ez, lehenengo aldera okertzen.

Atsegin ez dudana jolasa ez dut jokatzen, ezta nahi ez dudana errola ere. Agian burugogorra bai, baina ez naiz nere buruari tratatu txarrak ematearen aldekoa. Euskadiren papera alda dadin daukat kopetan, eta horregatik, igandean parte hartzea zentzugabea dakust. Hori bai, denon balantzak ez dabilta berdin, eta badira olio berri beharrean aurkitzen direnak ere.

- Kontabilitate



Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Fax:
74 18 91

- Lan

URKIDI

- Fiskal

AHOLKULARITZA

ASEGUROAK

Fotero

okindegia

opildegia

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Elgoibarko Ikastola, Lehen eta orain

Elgoibarko Ikastola, orain dela 31 urte sortu genuen. Orduan, orain bezala, eskola propio edo bertako baten beharra ikusten zen.

Ikastolak herriak eta herritik sortutako eskolak dira.

Oraingo honetan lege bat inposatu nahi digute. Honen azpian, Hezkuntza Sailaren (Buesa Jauna), helburua argi dagoelarik: **IKASTOLEN MUGIMENDUA ETA NORTASUNA DESAGERTZEA.**

Lege honen aurkako herriaren erantzuna nabarmena izan zen Bilboko manifestaldian. Hala ta guztiz, hainbat herritan, egoera ekonomiko edota politikoaz baliatuz, Ikastolen helburua desbideratu nahi izan dute.

Ikastolek, bere konfidantza agertu zuten konfluentzia eman zedin.

KONFLUENTZIA: Ikastetxe publiko eta Ika-

toletako alderdi positiboak jasoaz **ESKOLA PUBLIKO BERRI BAT** sortuz, ez ordea orain eskeintzen zaigun integrazioa.

INTEGRAZIOA: Ikastolak, Ikastetxe Publikoetan integratu, beren nortasuna galduz.

Maiatzak 24an, eginiko Asanblada Orokorrean bi proposamen azaldu ziren:

-Eskola Publikoan integratzearen alde.

-Ikastola orain arte bezala jarraitzearen alde (Junta Erretora eta langilego gehiengoaren nahia).

San Bartolome Ikastola Kooperatiba izanik, gure Estatuto sozialek Kooperatiben Legearen barnean arautzen direnez, bozketa egin ondoren, **SAN BARTOLOME IKASTOLAK, ORAIN ARTE BEZALA JARRAITZEN DU.**

Ikastolak honek, etorkizunean ere, orain arteko kalitatea eskeintzen jarraitzea nahi du (ingelesa 4 urtetik aurrera emanaz, bertan orientatzaile bat edukiz, 3 urtetik 16 urte-

rarte irakatsiz...).

Guizti hau, aurrera ateratzeko, **ELGOIBARTARRON INDARRA**, beti bezala, izango dugula espero dugu.

Lehen eta oraingo guraso eta irakasle taldea

Behartuak gaude, egia, den bezala azaltzera

Joan zen astean, Herri-eskolako 6. mailako ikasle batzuek, astekari honetan, **BERDITASUNAREN IZENEAN** izenburuarekin, bere protesta agertu zuten; baina egia zeharo aldatuz,

Gure Parrokiko katekesian, 1. mailatik 6. ra arte, euskerazko eta erderazko taldeak eratzen dira, gurasoen aukera jarraituz, bakoitzaren askatasun osoarekin, inor ere behartu gabe.

Idatzi zuten haur hauek, 1. mailatik 6.a arte, erderazko taldeetan ibili

dira, erderazko liburuekin katekesia erderaz emanda.

Kurtso bukaeran, igande bateko haurren Meza, 6. mailakoei eskeintzen zaie, Itun Berriak oroipen bezala bakoitzari emanaz; euskerazko taldeetan dabiltzanei euskerazkoak eta erderazko taldeetan dabiltzanei, erderazkoak.

Duela bi igande, Meza hori ospatu genuen. Bukae-ran, hor azaltzen zaigu haur bat esanaz: "Ni Herri-eskolan nabil eta euskerazko Itun Berria nahi dut".

"Guri berdin zaigu denontzat euskerazkoak erostea, esan genioen, baina liburu zehatzak daukagu eta errespetu handiarekin ematen ditugu, hau da: euskerazko taldeentzat euskeraz, eta alderantziz. Hau dena, horrela erabaki duzuelako".

Gure buruari galdetzen diogu, haurren gertakizun txiki honen azpian, ez ote dabiltzan guraso batzuren asmo oker eta gaiztoak.

San Bartolome Parrokiko Katekisten Taldea

IRIONDO Taberna

Jai zorientsuak!

Pedro Muguruza 2. Elgoibar

KEMEN  **Belardenda**

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 26. Tel: 74 40 31

Lizzy Boutique

GAZTEENTZAKO MODA

Errosario, 25 - Telef. 74 23 02

ORTUETA 

Zapatak eta poltsak

San Frantzisko 2 ☎ 74 04 95



1 957-58 ikasturteko mutikoak dira honoko hauek. Alondiga gainean zegoen Aita Agirre Eskola Publikoko erretratu hau, orduan eskolaume zen **Luis Diegok** ekarri digu. 8 eta 11 urte bitarteko mutikoek osatzen dute talde handi hau. Betaurrekodun maisu burusoilak, Don Valentin Arrieta izenekoak, "Cara al sol" kantarazten ziela egunero esan digu Luisek. Beste garai bat zen, alegia!

Ezagut ditzagun 51 mutiko hauen izen abizenak:

Goitik hasita, ezkerretik eskumara: **Iñaki Santos, Iñaki Unzueta, Jose Ramon Aller, Jose Luis Arriola, Manuel Costa, Aldo Galarraga, Ignacio Izagurre, Manolo Prado, Antonio Compañón, Zelaia anaiak, Juan Mari Elustondo, Pedro Bergara, Juan Martin eta Luis Diego.**

Bigarren iladan: **Josetxo Agirre, Gillermo Gara-**

te, Felix Torinos, Manu Arrillaga, Juan Cruz Sarriguarte, Jose Migel Bereziartua, Don Valentin Arrieta (maisua), Jesus Maria Vitores, Alex Garate, Enrike Barrenetxea, Luis Alberdi, Josetxo Prieto, Jose Mari Astigarraga eta Carlos Lehr.

Hirugarren iladan: **Iriondo "Sansón", Eduardo Garcia, Jesus Garcia, Jose Luis Oria, Migel Angel Mujika, Jose Maria Rivero, Javier Regil, Agustin Canales, Manuel Elizburu, Patxi Aranberri, Alberto Ajuria, Jose Luis Agirregomezkorta, Luis Maria Riaño eta Periko Azpiazu.**

Laugarren iladan: **Periko Osoro, Migel Ajubita, Alejandro Rey, Jesus Mº Agirregomezkorta, Patxi Garcia, Ignacio Varona, Javi Azpiazu, Julian Mujika eta Lucio Mugerza.**

● *Inazio Bereziartua Musikeskola* ●

Solfeo, Koral, Instrumentu eta Dantza matrikulak zabalik daude

Ekainaren 1etik 15era. Plaza Agirre 3 - 1. (ordutegia: 5-7)



Udalekuak

Aurtengo ikasturtea bukatzean dago eta oporretara begira, udalekuetara joateko eskaintza zabala izan ohi da. Herrian bertan burutzen diren udaleku irekien helburua, ikasleen arteko euskararen erabilpena eskolaz kanpo bultzatzea da. Epe jakin bateko egonaldietako udalekuetan, neskamutilek beren autonomian pausu bat eman, naturarekiko harremana sendotu, elkarbizitzan ohitu eta euskararen inguruko giroan jarraitzeko aukera izaten dute.

Ekaina hasi berri, udalekuetarako izena emateko epeak zabalik daude dagoeneko. Udalekuetara joan nahi izanez gero, gurasoek badute nahikoa aukera beren semealaben oporrak antolatzeko. Herrian bertan, aukera zabala eskaintzen du Udalak. Baldintza bakarra haurrak bertokoak edo Elgoibarren ikasten dutenak izatea eta euskararen ulermena izatea da. Udaleku irekietarako O.H.O.ko 2., 3., 4. eta 5. mailako haurrek eman dezakete izena. Ekintza gehienak kanpo ekintzak

izango dira eta Kultur Etxean, Liburutegian eta ikastetxeetako frontoi eta geletan ere burutuko dira. Eskolaurreko eta O.H.O.ko haurrentzat, berriz, denborapasak euskaraz egingo dira uztailean zehar. O.H.O.ko haurrek, ordea, sukaldaritza, eskulanak, euskal dantza, txalaparta etb. egiteko aukera izango dute aurtengo udan. Izena emateko Udaleko Euskara Zerbitzura jo daiteke eta azken eguna ekainaren 18a izango da.

Etxetik kanpo, baina herrian bertan geratu nahi izanez gero,



↳ Jolastu eta ondo pasatzea da Udalekuen

Aubixa udaleku aproposa da. Aspalditik martxan dagoen udaleku honetan sei egunetako bi txanda egongo dira.

Herritik kanpo, Bizkaia, Araba, Gipuzkoa zein Nafarroako udalekuetara joateko aukera dute haurrek. Hauetan, txanda ezberdinak,


Egun bat udalekuetan

Musikarekin batera, goizean goiz ohetik jaiki eta ondo gosalduta indarrak hartzeko. Eguna gogorra izango da eta beharrezkoa da ganoraz jatea.



Ondoren, mendira. Bertan, hostoak, belarrak, harriak eta adarrak lurretik hartuta, talde bakoitzak bere txabolatxo egingo du. Mendian ibili, naturarekin bat eginda, udalekuetako ekintza garrantzitsuenetarikoa izan ohi da.

Bazkalostean, digestioa egiteko eskulanak eta jolasak egin edo mozorrotzeko garaia izaten da. Haurrek bere sormena lantzeko aukera izaten dute. Eguzkiak ondo berotzen badu, bainu bat hartzea baino gauza hoberik ez dago.



Udalekuak non eta noiz

ELGOIBARREN:

- "UDALEKU IREKIAK"
 - Uztailaren 1etik 21era (txanda osorako ezinezkoa bada, aste jakinetarako eman daiteke izena)
 - Prezioa: 2.000 pta (txanda osorako)
1.000 pta (txanda erdirako)
- "DENBORAPASA EUSKARAZ"
 - Uztailaren 1etik 23ra.
 - Prezioa: 2.000 pta (txanda osorako)
1.000 pta (txanda erdirako)
- "IKASTAROKAK"
 - Txandak:
 - Uztailaren 1etik 9ra
 - Uztailaren 12tik 20ra
 - Prezioa: 500 pta.
- "AUBIXA"
 - Txandak:
 - Ekainaren 28tik uztailaren 3ra.
 - Uztailaren 5etik 10era.
 - Prezioa: 10.000 pta.

KANPOAN:

- ABAIGAR
 - Hiru txanda (uztaila eta abuztua bitartean)
 - Prezioa: 16.600 pta.
- BERNEDO
 - Hiru txanda (Uztailetik-abuztura)
 - Prezioa: 15.400 eta 19.000 pta.

● GONI

Hiru txanda (uztaila eta abuztua bitartean)
-Prezioa: 10.700 eta 15.400 pta.

● ITXASPE

Ekainetik uztailera
-Prezioa: 16.000 pta.

● URDIROZ

Hiru txanda (ekainetik abuztura bitartean)
-Prezioa: 16.600 eta 20.200 pta.

● SAN ASENSIO

Ekainetik uztailera
-Prezioa: 16.000 pta.

● ETXARRI LARRAUN

Sei txanda (ekainetik irailera)
-Prezioak: 9.500 eta 19.000 pta.

ALDUNDIAK ANTOLATUTAKOAK:

Hiru txanda (uztailetik abuztura bitartean)
-Prezioa: 15.750 pta.

-Lekuak: Orduña, Espejo, Zarautz, Hondarribia, Gorniz, Trapagaran, Turtzioz, Arteaga, Zaragueta, Zornotza, La Puebla de Labarca, Zuaza, Plentzia, Lauaxeta, Getaria, Segura, Barria, Txurruka, Rada-Boto, Zestoa eta Mutriku.



helburu nagusia.

adinaren arabera antolatzen dira eta euskara hutsezkoetan zein txanda elebidunetan parte hartzeko aukera dago.

Entretanimendua, jolasak eta elkarbizitza lantzeko aukera dira udalekuak. Arrazoi onak bertan parte hartzeko.

Udalekuak zertarako ?

Udalekura doan autobusaren inguruan pertsona mordoxka bat jiraka dabil azken agurrak banatu eta lehen negar malkoak isuriz.

Pertsonak beste arrazoi aurki ditzakegu udalekura joan edo bidaltzeko: "Ez du ezer jan nahi, han ikasiko du!"; "Ezkonberrietan bezala egoteko aukera, pake santua!"; "Ume guztiak doazenez, nire alaba ere bai"; "Todo el año en el infierno, 15 días de libertad condicionada (sic)"; gurasoen aldetik.

"Iaz oso ongi pasa nuen eta aurten berriro nator"; "Ez dakit, gurasoek bidali naute"; Nire

anaiatxoa ere badator, eta horregatik..."; "Nire lagunak ere bada-toz"; haurren aldetik.

"Ea ligatzeko aukerarik dugun!"; "Haurrak gustatzen zaizkit"; "Umeekin ondo pasatu eta diru piska bat ateratzeko aukera on bat da"; "A! umeekin al goaz ba?"; "Udalekuaren atzetik dauden helburuekin bat natorrelako"; begiraleen aldetik.

Guzti hauek eta beste hainbat tek egiten dute hain erakargarri udalekuen mundua.

Ondo pasau zuen udalekuetan!

Zuhaitz Astialdi Taldea



Afaldu. Gero, taldeek prestaturiko antzerkiak ikusi ondoren, gustoko neska edo mutilarekin dantza egiteko momentua. "Dultze-meneoa".

Botoa eman behar al duzu?

Egia esan, politikoek orokorrean duten irudi lotsagarria ikusita (beraiek ondo irabazitakoa) ez da erraza oraindik



beraiengan konfidantza dugula adieraztea botoaren bidez. Gainera, hauteskunde kanpainen zehar sufritzen dugun gezurrez beteriko bonbardeoa, nahiz kalean zein irrati-telebista eta abarretan, guztiz aspergarria egiten da. Baina, zer lortzen dugu etxean geratuta?

Besteek aukeratu-tako agintari batzuk edukitzea denoi ardura zaizkigun erabakiak hartzen, eta noski, hauek gure ustez, gehienetan gauzak gaizki egingo dituzte, eta orduan, batez ere gaiak hurbi-letik ikutzen bagaitu, moskeoak iristen dira agintari hauekiko.

Politikoengandik "paso" egiten dugula? Bale, baina beraiek ez dute gugandik "paso" egiten zeren beraiek dira zoritxarrez gure bizitzaren neurriak hartzen dituztenak gauza txikietatik handienetaraino. Eta ez dut uste adibiderik ipini behar dudarik, hainbeste daude eta.

Denok berdinak

direla? Mesedez, begiratu gai garrantzitsu bat edota herrian bertan eztaibaida ugari sortzen duen gai jakin bat eta ea zer dioten batzuek eta zer besteek. Beraien artean zer alde dagoen konturatu zara (batzuren artean behintzat).

Ez duzula aurkitzen gustoko talderik? Askotan ez da erraza baina, ziur aski, izango da talderen bat zeure pentsamoldearekin hurbilago dagoena. Nik behintzat argi daukat eta oraingoan ere botoa ematera noa.

Patxi Arriola



Gure gizartean nahiko garbi dago zein den jaun eta jabe. Hemen, dirua da nagusi eta diruak ez du izate politikorik, ez espiritualik.

Diruak berak, badauka nahikoa jabetasun eta indar gure gizartean dauden mekanismo guztiak bere interesetan erabiltzeko. Guzti honen ondorioz, gizona dirua lortu beharrean aurkitzen da. "Norbait" izan nahi baduzu, ezinbestekoa da dirua izatea eta dudarik gabe, diru asko daukaten pertsonak, gizarteko jaun eta jabe dira.

Hel diezaiodan oraingo gaiari:

Hauteskundeetako botoak, ez du gizarte osoaren errealitatea isladatzen. Politiko profesionalek, botoak euren postuak mantentzeko ezik ez dituzte nahi, zeinu edo ideologia politikoak kontutan izan gabe. Boto horiek, dirua dakarkiete politikoei eta hori horrela izanik, etengabeko lehian aritzen dira, gehienetan beteezina diren promesak aldarrikatuz eta publizitate obsesiboa delakoa erabiliz eta guzti hau demokraziaren izenean... Hau demokrazia bada, gezurra galanta!

Azken bolada honetan, politikak ez du ezer

garbi esaten. Nazionalismoa, ez da jada nazionalismoa. Sozialismoa ez da sozialismoa. Dena nahasirik dago eta nahiz bata, nahiz bestea izan agintean, guztien azpiegituran, beti izango da dirua nagusi.

Zoritxarrez gure gizartean, gizonaren oinarrizko eskubideak beharko lirakeenak izan, badirudi, ez dutela garrantzirik eta ikusi besterik ez dago munduan gertatzen diren sarraskiak (gosea, gerrak...). Zein da ordea, honen aurrean politikoaren jarrera?

Maizetan entzuten da horien ahotan, zuzentasuna, berdintasuna, anaitasuna, maitasuna... Hau entzun ondoren, ATEO-POLITIKO sentitzen naiz.

Esatea gogorra bada ere, ez dut politikoengan sinisten. Jakin dakidan arren, gizartearen garapena ez dela egun bate-tik bestera egiten, halere, lehen esan dudak bezala, diruak gizartea erositako bezala, hauteskundeak ere erositako ditu.

Gabi Agirregomezkorta


ETA ZURE USTEZ?

Botoa eman behar al duzu?



Inma Almenara
31 urte, etxeoandrea

Pare bat aldiz ez dut botorik eman eta orain ere ez noa botatzera. Ez dut inorengan sinisten. Denak berdinak dira.



Aitor Badiola
19 urte, ikaslea

Dagoen egoera ekonomiko dela eta krisitik ateratzeko botoa eman behar dala uste dot. Ez daukat klaru zeini emango diodan baina hemengo bati.




Jose Luis Vitores
32 urte, metalurgikoa

Botoa emango dut, eta denok egin behar dugun zerbait dela uste dut, boto zuria besterik ez bada ere.



Aniceto Mendieta
47 urte, arotza

Nik eman behar dut. Politikoez gauzak ondo egiten badituzte botoa eman behar zaie. Eskubide bat da.



Francisco Fernandez
38 urte, mekanikoa

Botatzea denon beharra da. Eskubide hori denok daukagu eta bete egin behar da. Beti eman izan dut botoa eta aurten ere emango dut.



Rosario Urain
55 urte, ileapaintzailea

Botatzeko intentzioa badaukat, baina ezin dot ez naualako zentsuan. Hala ere, botau egin bihar da, bestela ezin leike ezer eskatu.

PISUA KONTROLATZEA
ez da erreza,
MANTENTZEA
are gutxiago.

ERANTZUNA
"Herbalife" **NUTRIZIO**
PROGRAMA da .

Deitu 74 22 23

Belen Albizu. Santa Ana 10-4C



ASESORIA
GOAR

AHOLKULARITZA

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome I behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

Udako Euskal Unibertsitatera joateko Dirulaguntzak

Udako Euskal Unibertsitateak XXI. Udako Ikastaroak burutuko ditu uztailaren 19tik 31ra bitartean Iruñeako Larraona ikastetxean. Bi astetan zehar makina bat mintegi, praktika, ihardunaldi eta emanaldi izango dira.


Euskaldungoari orokorrean, eta euskaldun Unibertsitariei bereziki, egitarau zabala eskaintzen zaie: antzerkilaritza, bertsojaritza, musika, ekonomia, filosofia, historia, kazetaritza, pedagogia etb.

Matrikula epea ekainaren 1etik 30era izango da. Elgoibarko Udalak ikastaroaren matrikula osoa ordaintzeko dirulaguntza emango die, beka gisa, langabetu eta ikasleei. Honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzura (Nafarroa Plaza 3) jo edota 74 43 66 zenbakira deitu goizez.

Gazte Asanbladaren diapositiba emanaldia

Pasa den asteartean, Gazte Asanbladak diapositiba saioa eman zuen Kultur Etxean. Arratsaldeko 6etatik 8ak bitartean Gaztetxekeok burututako ekintzak eta orain, Gazte Asanbladak burutzen dituenak jasotzen dituzte diapositibek.

Bestalde, Gazte Asanbaldak, lokalik ezean, asteartero bilerak egiteko Kultur Etxeko azken solairua uzteko eskatuko dio Udalari. Eskakizuna ekaina eta uztaileko izango litzateke.



Jose Luis Ugarte Elgoibarren

Jose Luis Ugarte getxoarra, duela gutxi belauntzian munduari bira eman diona, Batxillergo institutuko 3. mailako filosofiako ikasleei bere abentura ausartaren berri ematen egon zen. Ugartek munduko bazter ezberdinetan ateratako transparentzia eta diapositiba saioa eskaini zuen. Ondoren, Institutuko ikasleek Ugarterekin galde-erantzun saioa izan zuten, eta, bidaian jasandako gora-beheren berri izateko aukera izan zuten protagonistaren ahotik.



Eguraldi bikaina eta aparteko giroa izan zuten "'Lurra eta Hizkuntza egunean'" parte hartu zuten guztiek. Goizean goiz abiatu ziren Morkaikorantz, ondoren San Pedron meza entzun, dominak banatu eta bazkari goxo eta dantzaldi batekin bukatzeko.

ORTOPEDIA
ARRIETA
Bidebarrieta 4, Eibar
Tel. 11 84 10

LANDA
HABATEGIA
San Frantzisko 23, Tel. 74 27 58

INTERIORES
- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK
Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

PUB
LAJANTEI
elgoibar



Hauek izan ziren **I. Eskolarteko Triatloian** parte hartu zuten gaztetxoak. Frogan zehar norgehiagoka gogorra ikusi bazen ere, azkenean lagunartean bildu ziren denak.

Eskolarteko Bertsolari Gaztetxoan XIII. Txapelketa

Zarautzeko kanporaketa pasatu ondoren eta beste bailaretako 20 taldeen artean Elgoibarko Izarrako Bertso Eskolan dabilzan Elgoibarko Ikastolako Arnaitz Gorriti, Jon Garate eta Kepa Mendikute (Mutrikuko Bertso Eskolako Xabirekin batera) osatutako taldeak, Bapateko Azken saiora joateko txartela lortu zuten.

Joan den larunbatean, maiatzak 29, Anoeta Pilotalekuan Zarautz, Azpeiti eta Hendaiako taldeekin batera kantatu zuten.

Sebas Etxaniz, Audientziaren erabakiaren zain

Sebas Etxaniz elgoibartarra Nikaraguan errefuxiatua zegoela, atxilotu eta Madridera ekarri zuen poliziak Nikaraguako epaileak libre uztea eskatu zuen arren.

Audientzia Nazionalak gaur erabakiko du Sebas Etxaniz libre utzi edo gartzelaratztea. Sebas 1980. urtean joan zen erbestera eta egun 50 urte ditu. LAIAko militante izan zen eta Elgoibarko Gestoren fundatzaile ere bai.



Esther Mediavilla izan da Kensington Ingeles akademiak BARRENeko 18.

alean zozketatu zuen afariaren irabazlea. Bi pertsonarentzat afaria Txarriduna jatetxean izango da. Zorionak eta on dagizuela!

**BOTA EZAZU
GEROA**

**EMAN BOTOA
PSOEri**

PSE

EUSKADIKO EZKERRA PSOE

Gehiengoaren aurrerakuntzaren alde



Itziar Elustondo eta Ainara Garzia izan ziren Elgoibarko Izarrak antolaturiko **Rock and Roll Lehiaketako** irabazleak. Gainontzeko partaideek maila ona erakutsi bazuten ere, epaimahaikoen ustez argazkian azaltzen diren bi neskak moldatu ziren ondoen.

Eduardo Arrillaga argazkilariaren kaleko erakusketa

Eduardo Arrillaga argazkilari elgoibartarrak, iazko San Bartolome jaietan zehar ateratako 70 argazki, erakusgai-salgai jarriko ditu astebukaera honetan. Erakuspuntu ezberdinak egongo dira: larunbat goizean Plaza handian

eta arratsaldean King-Kong parean. Igandean ere erakusgai egongo dira argazkiak.


Argazkietan San Bartolome jaietako momentu ezberdinak jasotzen dira eta bertan agertzen diren pertsonak herritarrak dira.



EDUARDO ARRILLAGA



Gipuzkoak, Euskadirekin batera,
aurrera egin behar du Euskadi hobetzeko.

EMAN  **EAJ**
BOTOA **PNV**_{ri}

L
 E
 H
 I
 A
 K
 E
 T
 A



Gemma Agirregomezkorta izan da maiatzeko lehiaketako irabazlea. Hiru galderei zuzen erantzun ondoren, ARTEGI dendan ekainaren 1ean egindako zozketan berak izan zuen zorte gehien. Argazkian, Gemma garbigailua eta ARTEGIko nagusia alboan dituelarik.

ARTEGI



Ekaineko SARIA

Bauknecht

MIKROONDAS BAT

EKAINEN GALDERA:

Gure herritik hain zikin pasatzen den Deba ibaia, non jaio eta hiltzen da?

Erantzuna bidaltzeko azken eguna ekainaren 30a izango da. Eta zozketa uztailearen 1ean egingo da ARTEGI dendan. Galdera astero errepikatuko dugu.

ERANTZUNA.....

IZEN ABIZENAK.....

HELBIDEA.....TFNOA.....

BIDALI ERANTZUNAK: elgoiBARREN. Nafarroa enparantza 2 . Elgoibar.

"Gazteak bihurriagoak ziren transizio garaian"

Aquilino, Institututik pasatu garen belaunaldi askok ezagutzen dugu. Bere atezaindegitik, gizontxo apal hau, gauzak ondo joateaz arduratu da. Institutua zabaldu zen 1976 urtetik

hona, 14-18 urtekoen okerrak eta jolasak aguantatu behar izan ditu. Pazientzia, ez zaio inoiz falta izan. Pasa den urtarrilean jubilatuta da eta bai omenaldi bat jaso ere. Merezia, benetan.

- Zein izan da zure lana urte guzti hauetan zehar Elgoibarko Institutuan?

- Atezain bati dagozkionak: edifizioa ondo mantendu, atekak, leihoak eta horrelakoak aldatuz... fotokopiagailuaz arduratu... bisitei harrera egin...

- Ze ezberdintasun daude oraingo eta hasierako institutuaren artean?

- 1976an zabaldu zenean, oso ikasle gutxi zeuden, 85 edo. Orain aldiz, 500 bat daude. Instalazioei dagokienez, hobetuz joan da. Gaur egun gauza askoz gehiago daude.

- Zer izan da gogorre-na zure lanean?

- Institutuko lehenengo urteak gogorak izan ziren. Urte haietan aldaketa politikoak izan ziren eta hori, asko nabarmentzen zen gazteen artean. Askoz bihurriagoak ziren orduan. Dena beraiena zela uste zuten. Orain hobeto. Trankilago lan egin dut azken urteetan, nahiz



"Gazteak hau edo bestea egin dutenaren preokupaziorik ez daukat jadanik".

ikasle gehiago egon. Bai horixe.

- Pazientzia, askotan bukatu zaizu?

- Beno ba... gazteen edade hori, 14-18 artekoa, oso zaila izaten da. Baina pazientzia galdu, galdu... ez.

- Zure andrea izan da urte hauetan laguntza bakarra?

- Bai. Nire emaztea, ins-

titutua zabaldu zutenetik dago lanean. Orain ni jubilatuta naizela, Bilbotik datorren mutil batek laguntzen dio. 7 urte gelditzen zaizkio oraindik jubilatzeke.

- Hainbeste urte pasa ondoren oroitzapen asko izango dituzu...

- Puff... asko, baina orain momentuan ezingo nizuke bat bera ere

esan... Hainbeste gauza gertatu dira... Azken finean, eguneroko gauzak dira, horiek dute inportantzia.

- Urtarrilak 22an omendua izan omen zinen institutuan.

- Bai. Merezki nuena baino gehiago izan nuen. Oso ondo pasatu genuen. Bazkari bat egin zuten... argazkiak ... dantzaldia... Oso, oso ondo egon zen.

- Eta orain hainbeste denbora libre duzula, zer egin behar duzu?

- Bizi... lasaiago ibili, bai nirearekin eta bestearekiko. Gazteek hau edo bestea egin dutelaren preokupaziorik ez daukat jadanik. Momentuz, pasierak eman, etxean gauzak egin, bi edo hiru egunetarako Galiziara joan... Nahiz eta semealabak hemen dauzkadan, nire andrea-ren jubilazioaren zain egon beharko dut denboraldi luzeagoak igaroz berton. Jaioterriak beti deitzen dizu.

Miriam Aldazabal

Jose Antonio Agote

Praktikantea



- Txikitan jolasten al zenuen mediku/erizainetan? - Bai, batzutan medikua izaten nintzen, bestetan gaixoa.
- Medikuntza ikasteko alperra zinelako egin al zenuen ATS? - Bai, ez nengoen mentalizatuta sei urteko ikasketak egiteko.
- Non nahiago duzu jartzea injekzioa? - Nahiago dut odola ateratzea, hor ikusten da norberaren profesionalitatea.
- Zergatik diogu beldurra praktikanteari? - Logikoa da, inori ez zaio gustatzen ipurdian orratz bat sartzea.
- Esaidazu garai bat eta pertsonai bat: - Erdi Aroa eta Marko Polo.
- Zerk negar eragiten dizu? - Normalean erreprimitu egiten naiz.
- Medikuntza tradizionala ala naturala? - Diagnostikoa tradizionalaren bitartez, baina beste alternatiba batzutan ere sinisten dut.
- Zeri edo nori jarriko zenioke sobredosi bat? - Fanatismoari. Nazka ematen dit.
- Zein da gaixoarekin daukazu harremana? - Neu tratatua izan nahi nukeen bezala tratatzen dut nik jendea, atsegin osoz.
- Umetan zenuen ametsa? - Txirrindulari profesional izatea.
- Zeure afizioa beraz... - Kirola orokorrean eta txirrindularitza bereziki.
- "Manitas" bat zarela esan didate. - Bai, eskulanak asko gustatzen zaizkit eta lanbide hau ere nolabaiteko artelana da.
- Zer tatuatuko zenuke eta non? - Tatuaiak oso sexiak iruditzen zaizkit, nik marrazki marinero bat egingo nuke besoan.
- Usain bat, zapore bat eta soinu bat? - Itsasoaren usaina, edozein zapore dultze eta erreka hotsa.
- Esistitzen al da odol urdindun ametsetako printzesa? - Ipuinetan agertzen den bezala nonbait existitu daitekeela imaginatzea atsegin dut.
- Zer galdera erantzungo zenuke gustora? - BARRENi buruzko iritzi bat.
- Bota. - Nik zenbait atal gazteleraz idaztea eskatuko nuke, euskara ez dakigunok ere irakur dezagun.

Jasone Osoro

BERTSOTAN

BOTOA, BAI ALA EZ?

Doinua:

Xabier Leteren "Habanera"

elgoiBARREnek hartu du
TELE 5ren tankera,
hauteskunde atarian
kazetariak kalera.
Botoa eman ala ez
egin didate galdera,
ez nihoa hemendikan
inori ezer agintzera;
Politikoen haritik
txontxongiloen antzera,
batzuek baietz diote
besteek ezetz kolpera.
Egiten dugunarekin
lasai gelditzen bagera,
norberak egin dezala
zilegi zaion aukera.

Imanol Larrañaga

Euskal Preso Politikoak eredu bat dira gizarte guztiarentzat.

Eredu pertsonala, militantea zein kolektiboa.

**Alberdi, Ibañez, Iriondo, Lariz eta Sebasek gure borroka behar dute;
gure botoa behar dute.**

Zure botoa HERRI BATASUNARI

**Zaer Motor taldea,
Gipuzkoako 2. onena**

Elgoibarko Lagun Taldeko *Zaer Motor* txirrindulari taldeak bigarren postua lortu zuen Arrasaten jokatu zen Gipuzkoako taldekako txapelketan. 28 kilometrotako lasterketan 44 minutu eta 55 segunduko denbora egin zuen Lagun Taldeko ekipoak, lehenak baino 12 segundu gehiago.

“Gran premio talleres Meca” lasterketan, bigarren urteko kadeteen kategorian, lehen helmugaratu zen elgoibartarra *Muebles Olatz* taldeko Pedro Cerviño izan zen, irabazlea baino segundu bat beranduago.

Buzeo ikastarorako izen ematea zabalik

Elgoibarko Urbizi urazpiko elkarteak bigarren mailako kirol buzeatzaile titulua eskuratzeko ikastaroa antolatu du ekainaren bigarren hamabostaldirako. Ikastaroak hogeitau egun iraungo ditu eta bertan klase teorikoez gain, klase praktikoak emango dira Olaizaga kiroldegian, arratsaldeko 7,30ak eta 10ak bitartean. Ikastaroaren prezioa 30.000 pezetakoa izango da eta plazak mugatuak izango dira. Izen ematea Olaizaga kiroldegian egin beharko da 4ak eta 9ak bitartean edo, 74 13 61 telefonora deituta. Ikastaroan parte hartzeko gutxieneko adina 16 urtekoa izango da eta gazteagoak direnek gurasoen baimena beharko dute izan.



Oier Aldazabal:

Elgoibarren ez dago pilotazale askorik

-**Noiztik zabilta pilotan eta nola sortu zitzaizun zaletasuna?**- Hiru bat urterekin hasi nintzen. Nere aita ere pilotaria izan zan afizionauetan eta txikitatik izan dut pilota esku artean.

- **Zer moduz zoazte Deba Arroko Txapelketan?**- Orainarte ondo baina, aurreko astean Arrasatearren aurka jokatu genuen semifinala eta hemen 22-17 irabazi arren, han 22-10 galdu eta kalean geratu gera.

- **Pelotari gazte asko al dago Elgoibarren?** - Nere edadian, 18 urtetik gora oso gutxi. Ni, esaterako, plaentxiar batekin ari naiz jolasean zeren ez dago jubeniletan nerekin jolasteko pelotaririk. 9-14 urte bitartean, berriz, gehiagogo dago.

- **Publiko aldetik ba al dago zaletasunik?** -Oso gutxi. Plazan partiduren bat jarriz gero, pasian dabilzanak arrimatzen dira baina, Ikastolan jartzen bada jende oso gutxi joaten da.

- **Noizbait profesional izateko asmorik?**- Oraindik ez dut horrelakorik planteatu. Momentuz



hobby bat da eta oso gustura aritzen naiz. Datorrena, etorriko da.

- **Zer iritzi daukazu apustuetaz?** - Ni ez naiz apustu zalea. Diruarekin horrela ibiltzeari ez diot zentzu handirik ikusten, baina hor daude.

- **Asko sufritzen al dute eskuek?**- Bai, nireek bai. Esku bigunekoa naiz eta beti ibiltzen naiz eskuak fastidixauta. Beste batzuek, suertea izaten dute eta berehala gogortzen jakuez eskuak, baina nik bastante sufritzen dot.

- Adina: 18.
- Beloki ala Eugi? Beloki.
- Euskadiko txapeladun izateko faboritua? Galartza.
- Pilota biziak ala motelak? Motelak.
- Desio bat? Hauteskundeak azkar amaitzea.
- Gerriko urdina ala gorria? Urdina.

UDA BERRI
ELGOIBAR

GIMNASIO DEBAY
JUDO-KARATEA-TAEKWONDOA
GIMNASIA-GIHARKETA
MANU MORA
kirol hezkuntzan lizentziatua
Santa Ana 46, Tel: 74 07 93

Iraegui
ERROTULAZIOA
☎ 74 39 52
San Antolin 74 37 06

Partaidetza handia arrantza lehiaketan

Pasa den igandean, hilak 30, Elgoibarko La Union elkarteak arrantza lehiaketa burutu zuen Beduan (Zumaia). Lehiaketan, elkarteko bazkideek zein herriko zaletuek har zezaketen parte. Guztira 27 arrantzalek jardun zuten goizeko 9etatik eguerdiko 1ak arte, nork harrapatuko arrainik handiena.

SAILKAPENA:

Infantilak

- 1- Igor Berasategi3.825 puntu
- 2- Ekaitz Berasategi1.150 puntu
- 3- Ivan Bello1.125 puntu
- 4- Javi Bello 950 puntu

Sailkapen orokorra:

- 1- Igor Berasategi3.825 puntu
- 2- Agustin Garagarza3.200 puntu
- 3- Javier Celaya 2.895 puntu
- 4- Ignacio Lehr2.600 puntu
- 5- Julio Martinez Ruiz .. 2.395 puntu



➤ Migel Canales, La Unioneko ordezkarria, Igor Berasategiri saria ematen.

Arrainik handiena Cesar Fidalgok harrapatu zuen. 850 gramoko pieza izan zen.

Halaber, La Union arrantza eta ehiza elkarteak "Tiro al plato" lehiaketa antolatu du larunbat honetarako. Lehiaketa

goizeko 9,30etatik 14,00etara bitartean izango da San Pedroko tiro zelaian. Parte hartu nahi dutenek lehiaketa hasi baino ordu laurden lehenago egon beharko dute tokian bertan.

M.A.C.



RIONDO KIROLAK ek

Eskerrik zintzoenak eman nahi dizkizue herritar guztioi



San Frantzisko 37. Tel: 74 09 56

▲ MENDI,
ESKALADA eta
KIROL
GUZTIETARAKO
EKIPAMENDUA.

▲ GAZTE TXARTELA
erakutsita, %10eko
BEHERAPENA.

ELGOIBARKO HERRIARI

Elgoibarren zabaltzen ari diren izenik gabeko sobreak direla eta, zeintzutan gure anagrama duten hiru orritan beste alderdi politiko bat era iraingarri batean gutxiesten den, Elgoibarko EAK zera adierazi nahi du:

1- Ez daukagula zerikusirik idazkin horrekin ez eta bere zabalkundearekin ere. Ez gatzela bat bertan esaten denarekin; ez da hori gure estiloa.

2- Gure botoak gutxitu asmoz antolaturiko maniobra ZIKIN hau gaitzestea nahi dugu, inkesta guztien arabera EA-EUE koalizioaren boto intentzioak gora egin duen une honetan, hain zuzen ere. Norbait urduri jarri da, seguraski, eta bere `demokrata´ikutuaz baliatuz, izenik ez duen gaiztakeria hau egin nahi izan digu.

ELGOIBARKO EUSKO ALKARTASUNAKO JUNTA MUNIZIPALA
(BIDALIA)

Hitzeko Pertsonak



BOTA EZAZU



EA  **EUE**
BAT EGINIK



Prebentziorako programa bat eskatu zuten Errotatxok prebentzioaren astean

Pasa den astean drogomenkotasunen prebentzioaren astea ospatu zuten Errotatxo elkarteak. Ekin-tzak maiatzaren 26an hasi ziren "droga trafikoa"ri buruzko mahainguruarekin. Askagintzako kide batek eta Donostiako Audientziako epaileak egungo droga trafikorearen egoera aztertu zuten.

Ostiral arratsaldean, hurrei eskainitako jaia burutu zuten Errotatxok Plaza handian. Arratsaldeko 5 terdietan hasita, hurrek marrazkiak egin eta dragoi txinoarekin jolasteko aukera izan zuten. Plazan bildu ziren haurren artean gozokiak eta globak banatu ziren. Errotatxok

haurrentzat prestatu zuten egitarauan, buru-handiak eta txafliu botatzea iragarritako egon arren, Udalak ez ziren Errotatxoko ordezkariari azken bi ekintza hauek burutzeko baimenik eman. Haurrentzako jaia, Debako "Oihulari Clown" taldeak Herriko Antzokian eskaini zuten "Todo bajo Clowntrol" lanarekin bukatu zen.

Larunbat goizeko drogomenkotasunen prebentziorako jaiaren gune bihurtu zen Plaza handia. Azken bi urteotan bezalaxe, herriko elkarteak, 32 elkarte hain zuzen, urtean zehar egiten dituzten ekintzak bertara gerturatu zen jendeari erakusten jardun zuten. Musika eta tri-



Jende mordo bat bildu zen prebentzioaren jaiaren.

kitilariekin batera, ohe elastikoak, zezen mekanikoak eta airez puztutako gazteluak aparteko giroa jarri zuten haur, gaztetxo eta helduen artean.

Eguerdiko ordubatean, Plaza handian manifestaldia hasi zen. Herriko kaleak zeharkatu ondoren Errotatxoko kideak, Andoni Segundok, komunikatu bat irakurri zuten ekintza hauen helburua adieraziz. Batetik, "pre-

bentzia guztion gauza dela eta guztiok bertan parte hartu behar dugula" adierazi zuten eta, bestetik, "prebentziorako bideak lantzea posible dela" esan zuten. Horregatik hitzak entzuteaz gain, zerbait egi-tea derrigorrezkotzat jo zuten. Udalari, prebentziorako programa bat prestatzen has dadila eskatu zion, sektore ezberdinen artean inolako diskriminaziorik egin gabe.

Eguerdiko 2etan, 50 pertsona inguruk lagunarteko bazkaria izan zuten, eta, arratsaldean, jaia bukatzeko "Algara" taldeak "Katzu koka, aitona" antzeshana eskaini zuten Kiroldedian.



"Bizirik bizi" zioen Errotatxoren manifestazioko pankarta batek.

Jose Ignacio Ullacia Echeverria

AROTEGIA- OBRAK- IGELTSARITZA

Santa Klara, 10-1
Tel: 74 05 47

Etxea: Santa Ana, 30
Tel: 74 04 68



karkizano

San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49

arrieta
modak

San Bartolome 18
74 08 49

TRINITATE JAIAK

Astebukaera honetan elgoibartarrok ospatu behar dugun Trinitate jaiak herrialde katolikoetan 325. urtean du jatorria, Nicea-ko kontzilioko dogma aldarrikatu ondoren. Jai hau, nabarmenki errotu da gure herrian. Guk aurkitu dugun lehendabiziko erreferentzia 1897. urtekoa da, hain zuzen "Santisima Trinidad" egunean zezenketa egiteko baimena eskatzen denekoa. XX. mendearen lehen urteetan, ohitura zen gure herrian hiru berbena ospatzea hiru toki ezberdinetan: Plaza Txikian, Plaza handian eta merkatu zaharrean, egun dagoen toki berean zegoena. Leku estalia zen merkatua eta egitura hori aprobetxatuz, antzerkia eta boxeo konbateak ospatu ziren bertan, aipatutako dantzaldiez gain. Garai honetan ere, Nahaste Borraste deritzon lasterketa egin ohi da. Hiru froga burutzean datza Nahaste-Borraste: lehendabizi korrika, gero bizikletaz eta azkenik bizkar gainean zakua eramanez.

Koldo Lizarralde

EKAINAK 4, OSTIRALA

- **11etan:** Maalako parkean BAP eta EHUN KILO taldeak.

EKAINAK 5, LARUNBATA

Trinitate Bezpera

- **11etan:** Foruen Plazan **GINKANA** eta ondoren Eskolarteko Jokoen sari banaketa.

- **4etan:** **X. XAKE TXAPELKETA** Nafarroa Plazan. Zubi-ondo Elkarteak antolatuta.

- **5etan:** Deba Araneko **PILOTA** Txapelketaren finalak Ikastolako frontoian. *Lagunak* pilota eskolak antolatuta.

- **7etan:** **HAURREN TANBORRADA** Udal Musika Bandarekin.

- **11etan:** **GOLDEN APPLE QUARTET** Foruen Plazan.

EKAINAK 6, IGANDEA

Trinitate eguna

- **9etan:** Txistulari Udal taldearen **DIANA**.

- **11etan:** Eibarko musika bandaren **KALEJIRA**.

- **11,30etan:** **MEZA NAGUSIA** San Bartolome parrokian, eliz abesbatzak abestuko duelarik.

- **12etan:** **ERRALDOI ETA BURUHANDIEN** alardea Elgoibar, Arrasate eta Sangesako konparsekin.

- **12,30etan:** Eibarko Musika Bandaren **KONTZERTUA**.

Felix Lodosoren zuzendaritzapean hona hemen egitaraua: "Boloniako basoa" (M. Jimenez, "Rosamunda" (Franz Schubert), "Mari Celi" (F. Corto), "Patinatzailea" (E. Waldteufel), "Balserako gobidapena" (Weber).

- **Eguerdian** Eliz abesbatzak zenbait kantu abestuko ditu kaleetan zehar.

- **4etatik 9etara:** Plaza Txikian **HAURRENTZAKO PARKEA**. (Euria egiten badu, Ikastolako frontoian izango da.)

Parke honetan izango diren jolasak honako hauek dira: 5 kart, Tren bat, Bi gaztelu puzgarri eta zezen mekanikoa.

- **5etan:** Plaza Handian **HERRI KIROLAK** eta bertsolariak. Ekitaldi honetan herriko sei harrijasotzaileak omenduak izango dira. (Euria egingo balu ekitaldia kiroldegian izango da)




AZKUE

TRINITATE JIAIAK

-Aizkolariak: Mugerza I eta Mugerza II Manzidor eta Elorriagaren aurka. Norgehiagokan 8 kanaerdiko enborra moztu eta 8 kilometro korrika egin beharko dute.

-Trontzan: Sanson eta Mintxeta Kanua eta Agarretxikiren aurka, 15 ontzako 10 korte egin beharko dituztelarik.

-Harrijasotzaileak: Zelailuze, Burunza, Poti, Sarobe, Zelai eta Goenatxo. Javier Arriola (Egi) kintopekotako kategorian, sei minututako bi tandantan ehun kiloko harri zilindrikoarekin marka egiten saiatuko da.



EKAINAK 8, ASTEARTEA

- **8etan:** Arkadiusz Laukotearen **KONTZERTUA** Herriko Antzokian.

Laukotea polonian jaiotako lau musika gizonen osatzen dute eta hona hemen eskainiko dituzten obrak:

1. zatian: "Pequeña serenata diurna" Mozart-ena eta J.C. de Arriagaren "Cuarteto Nº 2" eta 2. zatia: Cuarteto op. 96 "American" Antonin Dvorak-ena.

EKAINAK 10, OSTIRALA

- **8etan:** Franz Danzi Boskotearen **KONTZERTUA** Herriko Antzokian.

Egitaraua: 1. zatia: "Divertimentos en si bemol" Mozart-ena eta "Quinteto en Mi Menor Op. 67 Nº2" Franz Danzi-rena. 2. zatia: "Quinteto en si Bemol Mayor Op. 56 Nº 1" Franz Danzi-rena eta "Tres piezas breves. 1930" Jacques Ibert-enak.

EKAINAK 11, OSTIRALA

- **10etan:** Trikitilari eskolaren **JAIALDIA** kiroldegian.

- **8etan:** **GIPUZKOAKO DANTZEN IKASTAROA** Iñaki Arregi eta Mikel Pontestaren eskutik kiroldegian. Larubatean 11etatik aurrera izango dira klaseak.

1993ko TRINITATE JIAIAK EKAINEKO KONTZERTUAK

HERRIKO ANTZOKIAN

Asteartea
8

Arkadiusz Laukotea

Arratsaldeko
8etan

Osteguna
10

Franz Danzi Boskotea

Arratsaldeko
8etan

ELGOIBARKO UDALA



**FORU ALDUNDIAREN
LAGUNTZAREKIN**



A STEAN ZEHAR

5 Larunbata

9,30 "TIRO AL PLATO"

Tokia: San Pedroko tiro zelaia
Antolatzailea: La Union

16,00 RADIESTESIA IKASTAROA

Tokia: Kultur Etxea

19,30 ZINEA

"Sommersby"

6 Igandea

16,30 ZINEA

"Somos los mejores"

19,30 ZINEA

"Sommersby"

7 Astelehena

19,30 ZINEA

"Sommersby"

9 Asteazkena

19,00 HITZALDIA

Gaia: Soka dantza: esangura eta funtzioa Euskal Herrian.

Hizlaria: Juan Antonio Urbeltz

Tokia: Kultur etxean

Antolatzailea: Musika eta Dantza fundazioa

11 Ostirala

20,00 DANTZA IKASTAROA

Gaia: Gipuzkoako dantza

Tokia: Kirolegia

20,00 ANTZERKIA

Taldea: Hostaia

Antzeslana: "Lorategi urperatuak"

Tokia: Herriko Antzokia

Antolatzailea: Errotatxo

Z I N E A

"Sommersby"

Jack Sommersby (Richard Gere) etxera itzultzen da bere emazte Lauren albora (Jodie Foster) 7 urte gerra zibilean eman ondoren. Emaztearekin harremanak nahiko txarrak ziren gerrara joan aurretik, baina handik bueltan arras ezberdina, atsegina eta langilen fin dator Jack.

Z I N E A

MAIATZEAN

JAIOTAKOAK	HILDAKOAK	EZKONDUAK
<p><i>Ander Ezkurra Altuna</i> Maiatzak 12</p> <p><i>Asier Gurrutxaga Suarez</i> Maiatzak 14</p> <p><i>Julen Ibarluzea Olazizola</i> Maiatzak 20</p> <p><i>Amaia Belza Mendikute</i> Maiatzak 20</p> <p><i>Josu Espilla Juaristi</i> Maiatzak 24</p>	<p><i>Jose Luis Garcia Cardoso</i> maiatzak 3 (30 urte)</p> <p><i>Jose Antonio Arrizabalaga Eibar</i> maiatzak 5 (84 urte)</p> <p><i>Mari Karmen Zabala Mendizabal</i> maiatzak 9 (65 urte)</p> <p><i>Corrado Melica Gorostiza</i> maiatzak 20 (29 urte)</p> <p><i>Irene Gorriti Aranberri</i> maiatzak 25 (71 urte)</p> <p><i>F. Javier Mendikute Mendikute</i> maiatzak 26 (79 urte)</p>	<p><i>Alberto Torres Aierdi eta Maria Pilar Esnaola Galdos</i> (Maiatzak 15)</p> <p><i>Manuel Chimeno Pellon eta Ana Maria Olmo Cuenca</i> (Maiatzak 15)</p> <p><i>Aritz Monasterio Bilbao eta Gisela Sal y Rosas Trinidad</i> (Maiatzak 22)</p> <p><i>Alberto Kalzakorta Ugartetxea eta Pilar Ortega Martinez</i> (Maiatzak 22)</p> <p><i>Juan Carlos Fernandez eta Maria Ester Lopez Pinilla</i> (Maiatzak 29)</p> <p><i>Jose Manuel Lopez Sanz eta Isabel Lozano Mora</i> (Maiatzak 30)</p>



INMUEBLE ETA FINANZA AGENTZIA

Rosario 34, 1 ezk. Elgoibar
Tel: 74 42 83 Fax: 74 42 53



S.Frantzisko, 33 ☎ 74 27 24

GURBIL Jatetxea

- Pintxoak - Eguneroko menua
- Karta - Plater konbinatuak

Orain probatu etxean egindako PIZZAK

Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar

Lana

COU, EFP eta Batxiller Tekniko eta Moduloetako ikasleei dibujo lineal-industrialeko klaseak ematen dizkiet.

Iñaki: 74 34 01

Programatzaileak, partikular, enpresa eta komertzio-entzako aplikazio informatikoak egiten ditu. Proiektua aztertzeko prest gaude inolako kosturik gabe.

74 25 35

Ingeniero industrialak **matematika, fisika eta kimikako klaseak** ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.

Tel.: 74 13 11. Javier

Tituludun irakasleak **O.H.O.ko klase partikularrak** ematen ditu.

Alazne Tel.:74 28 53

Arte ederretako ikasleak (2. maila) **GEOMETRIA** irakasle bat behar du.

Maila altua.
Carolina 74 44 51.

Magisteritza eta administrari tituludun irakasleok, O.H.O., L.H-1 eta euskarako klase partikularrak ematen ditugu.

Deitu 74 04 13 telefonora.

Salerosketak

Lau urteko haur batentzat bizikleta bat erosiko nuke.

Deitu 74 30 75 telefonora.

Arregitorren garajea saltzen dut. Prezio interesgarria.

Tel: 74 27 39

Opel Corsa Cyti, BI-AK saltzen dut. Hobekuntzekin. Deitu lan orduetan.

94-6201918 ra (Gorka).

Paseoko bizikleta saltzen dut. "Peugeot" kanbioduna.

Prezio onean. Tel: 74 22 67 Myriam.

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean.

Jose Mari. Tel: 74 21 35-74 22 10

FORD FIESTA zuri bat saltzen dut, BI-AB. Prezio merkea.

Tel: 74 28 77. Jose

Garaje bat saldu edo alokatuko genuke. San Roken (pista beltzean).

74 08 79 Julian edo Maria Jesus

Bi bizikleta motoreta saltzen ditut. BMX modelokoak.

Tel: 74 05 35

Gimnasia egiteko tresna saltzen dut. Muskuloak eta hankak indartzeko oso egokia. Prezioa negoziatzeko.

Aitor: 74 22 74 Egun osoz.

Organu HAMOND bat. 8 baxu, bi teklatu eta sekzio ritmikoduna. 50.000 pta.

Alberto: 74 14 94

Kontaktuak

3 sutako sukalde bat dohan emango nuke. Behar duenak, deitu **74 34 03 zenbakira.**

1993ko ekaina TRINITATE JAIAK



KULTUR ETXEAN

9 Asteartea arratsaldeko **7**etan
Hitzaldia: Juan Antonio Urbeltz
"SOKA DANTZA.
ESANGURA ETA FUNTZIOA
EUSKAL HERRIAN"

KIROLDEGIAN

11 Ostirala - **12** Larunbata
GIPUZKOAKO DANTZEN
IKASTAROA

Izen ematea: Kultur Etxean

elgoibarko udala



*foru aldundiaren
laguntzarekin*





“Europearrek dutena
europear preziotan lortzen dudanean
sinestuko dut European.”

 VOLKSWAGEN



Golf Europa, Europear preziotan.

Autos Eibar, S.A.



Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42 / 11 00 90 EIBAR